

COSTURA (AVANZADO)

Jarduera

Joskintzaren tekniken ikasketan sakontzea. Aurretiazko ezagutzak dituzten ikasleei zuzenduta.

Deskribapena

Joskintza arloan aurretiazko ezagutza duten ikasleei zuzendutako kurtsoa. Jantzien sorkuntzari eta transformazioari buruzko ezagutzetan sakondu egingo da ikastaro honetan eta, honela, norberak sormenezko edota estilo tradizionalako diseinuak sortzeko aukera izango du. Klaseetan teknika eta aukera desberdinak aztertuko dira.

Helburuak

- Patroi desberdinen ezagutzan sakontzea.
- Jantziak sortzea edota kustomizatzea.
- Neurriak modu egoki batean hartzen ikastea.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.

Programa

1. Hiruhilekoa

- Josteko makina nola erabiltzen den gogoratzea.
- Neurriak ondo hartzea.
- Morfologiaren analisi orokorra.
- Pertsona bakoitzari egokien gelditzen zaion mozketaren estiloa jakitea.
- Proiektu bakoitzerako jarraibide egokiak: hari ahulak, oihala jartzea, etab.

2. Hiruhilekoa

- Ehun bakoitzaren ezagutza.
- Patroiaren eta diseinuaren aukeraketa.
- Ehunean patroiak jartzea.

3. Hiruhilekoa

- Ikasle bakoitzaren proiektuetan sakontzea eta prozesu horiek gainerako ikasleekin partekatzea, hori baita ikasle bakoitzarentzat aberasgarriena.
- Jantzigintza teknika desberdinak ikasiko ditugu jantzi bera sortzeko.

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea.

Nori zuzendua

Helduak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Ikasle bakoitzak bere proiektua aurrera eramateko material espezifikoak eraman beharko du: Telak, guraizeak, hariak, orratzak...